

Zientziari buruzko historioak kontatu nahi?

2013/01/03

FECYT eta British Council-ek monologo zientifikoek nazioarteko lehiaketan parte hartzeko estatuko lehenengo edizioa antolatu dute.

Zientzia, ingenieritzan edo matematiketan lan egiten baduzu eta egiten duzuna erraz eta dibertigarri azaltzeko gaitasuna baduzu, monologo bat sortu eta zure 3 minutuko bideoa igo urtarrilak 31a baino lehenago; horrela **FameLab** lehiaketan parte har dezakezu.

Aukeratutakoek zientzia komunikatzeko formakuntza saio bereziak jasoko dituzte eta Estatuko finalean parte hartuko dute. Irabazlea Science Cheltenham Festival 2013 nazioarteko finalean egongo da.

Animatu eta parte hartu!

Informazio gehiago nahi baduzu, hemen [FameLab aurkezpenaren bideoa](#) duzu.



FameLab lehiaketa